



Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideak

Arartekoaren 2/2021 Gomendio
Orokorra, maiatzaren 18koa





Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorra, maiatzaren 18koa.

Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideak

1. Aurrekariak

Eusko Legebiltzarrari azken urteotan aurkezturiko txostenetan, Arartekoak kezka agertu du¹ Euskal Autonomia Erkidegoan sexu-abusua (zentsurik zabalenean) jasan duten haur eta nerabeei erakunde publikoek emandako erantzunaren gainean. Kezka horrek herritarren zenbait kezatan zuen sustraia, izan ere, haietan tratu txar larri horiek nozitzen zituzten haurrak aurkitzen genituen. Kezka berbera zuten gizarteko eta erakundeetako eragile batzuek ere gai horretara erakartzen ari ziren arreta. Elementurik aipatuenak honako hauek ziren: jarduerak zatikatuta eta loturarik gabe egiten zituztela –gehienetan, sistema publikoek- eta, modu deribatuan, Euskadiko lurraldean sistemen artean ez zegoela gidarik edo protokolorik irizpide partekatuekin eta igarotzeko ibilbide argiekin. Era berean, egiaztatu zen ez zegoela zerbitzu publiko espezializaturik sexu-abusuaren biktima izandako haur eta nerabe guztiei eta bakoitzari arreta terapeutikoa bermatzeko.

Egoera horren diagnostikoa egiten laguntzeko eta arreta hori hobetzeko asmoz, Arartekoak gai horren gaineko berriazko ikastaroa antolatu zuen 2018ko udan: [Haurrenganako sexu-abusua. Gizarte osoa interpelatzen duen errealitate konplexua.](#) Bertan, gaiarekin zerikusia zuten erakundeetako eragile guztiek hartu zuten parte eta, bukaeran, erakunde honek erantzun ordenatua eta osoa eraiki zedin sustatzen

¹ Ikusi Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren azken bost urteotako txostenak, Arartekoak Eusko Legebiltzarrari egindako urteko txostenen separata gisa erantsitakoak.

Jarraitzeko konpromisoa hartu zuen, edonolako sexu-abusua edo sexu-esplotazioa pairatzen duten haur eta nerabeak antzemateko, esku hartzeko eta tratatzeko.

Konpromiso horri erantzuteko, 2019ko bigarren hiruhilekoan, protokolozko proposamen tekniko bat prestatzeko prozesua hasi zen eta han izan ziren gonbidatutako erakunde guztietako arduradun gorenak formalki izendatu zituzten pertsonak. Zehazki, erakunde hauetakoak: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politika, Hezkuntza, Osasun, Segurtasun eta Lan eta Justizia Sailak² –talde psikosozial judizialean parte hartzen dutenez gero, Biktimak Artatzeko Zerbitzua eta Auzitegiko Medikuntzaren Euskal Erakundea-; hiru foru aldundietako Gizarte Politiketako/Gizarte Ekintzako Departamentuak, haurrak babesteko zerbitzuen (babes-erakunde publikoak) arduradunak baitira; EUDEL Euskal Udalerrien Elkarte, zeinak Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Udaletako gizarte-zerbitzuetako ordezkarien esku utzi zuen bere parte-hartzea; Euskal Herriko Fiskaltza Nagusia, Euskal Herriko Auzitegi Nagusia, baita bere Gobernu Idazkaritza ere, eta Abokatutzaren Euskal Kontseilua.

Lantalde handi hori Arartekoak dinamizatu zuen, haurren sexu-abusuan eta gai hori lantzeko protokolo eta gidetan aditua zen pertsona batekin elkarlanean. Taldeak sektoreko eta osoko saioetan egin zuen lan 2019. urte osoan barrena, eta urte horren amaierarako behar bezalako adostasun-maila zeukan proposamen teknikoa egin zuen.

2020ko lehen hiruhilekoan, agiri teknikoa erakunde parte-hartzaileetako arduradunei aurkezten hasi zen erakunde hau, eta haien azken ekarpenekin, behin betiko proposamen teknikoa taxutu zen. Proposamen hura islatuta geratu zen gomendio honi erantsitako jarduteko jarraibideetan.

Orain arte atzeratu egin da prozesu haren amaiera, hainbat arrazoiengatik: Eusko Legebiltzarra desegin zen; hauteskundeak deitu ziren otsailaren 10eko 2/2020 Dekretuaren bitartez; COVID-19aren izurria indarrez agertu zen; Eusko Gobernu berria taxutu zen eta aurreko sailen egitura eta arduradunak aldatu ziren.

Gertakari horien ondorioz, eta kontuan izanda premiazkoa dela interesa duten sistema eta eragile guztiek epe laburrean ezar daitezkeen eta berme tekniko gorenak duten jarduteko jarraibide batzuk eskura izatea, Ararteko erakundea ziur dago ezinbestekoa dela gomendio orokor hau egitea.

Ararteko erakundearen izaera eta eskumenak gogoan izanda, gomendio orokor hau euskal administrazio publikoei egiten zaie. Hala ere, justizia administrazioak une oro lan teknikoan parte hartu duenez gero eta, proposaturiko jarduteko jarraibideen bidez lortu nahi diren helburuak lortzeko, prozedura judiziala funtsezkoa denez gero, independentzia judizialarekiko eta fiskalarekiko begirunea ahalik eta gehien zainduz, oso interesgarria da justizia sistemari jarraibide hauek aintzat hartzeko gonbita egitea, bere prozeduretan erabil ditzan, sexu-abusua edo sexu-esplotazioa jasan duten haur eta nerabeak babesteko denon helburu hori erdiesten laguntzeko.

² XI. Legealdiko sailen izenekin.

2. Gogoetak

2.1. Jarduteko jarraibideei buruzko proposamen teknikoaren helburua

Euskadin haurren aurka egiten den indarkeria-modu horri erantzuteko orduan ikusi diren gabeziak aintzat hartuta, jarduteko jarraibideen proposamenak helburu nagusi bat azaldu du: esku-hartze eraginkorra ziurtatzea haurren aurkako sexu-abusua edo sexu-esplotazioa gertatzen direnean, kasu guztietan bermatuz biktima babestuko dutela eta hari egindako kaltea (fisiko, psikologiko nahiz emozionala) konponduko dela. Gainera, prozedura judiziala hasten den kasuetan, babes horrekin eta kaltea konpontzearekin batera, bilatzen da biktimaren auzi-bermeak eta akusatuarenak bete daitezen, baita probaren bermea ere.

Lanari heltzeko ikuspegia hautatzeko orduan –betiere diziplina artekoa eta erakunde artekoa-, helburua ez da izan, ordea, tresna berriak diseinatzea (nahitaezkoak ez baziren behintzat), ezta ere “zerotik hasia”, dagoeneko eskura dauden erreferentziak, tresnak edo prozedurak alde batera utzita. Hasteko premisa izan da dagoena eta baliozkotzat eta erabilgarritzat jotzen dena baliatzea, lortu nahi den xedea lortzeko. Horrela erdietsi nahi da, prozedura ideala ez bada ere, bai eraginkorrena, erabilgarriena eta gure oraingo errealitateara edo errealitateetara egokitua. Labur esanda, jarduteko jarraibide horiek egiterakoan, kontuan hartu dira Euskadiko eskumenen, araudiaren eta funtzioen errealitatea, baita dauden tresna judizialak, teknikoak eta prozedurazkoak ere.

Proposatutako jarduteko jarraibideek, bestalde, ez dute baliogabetzen eragile bakoitzak bere arloan egin behar duena. Horien bidez ez da ezer ordezkatu nahi, osatu baizik, arreta bereziaz aintzat hartu behar diren elementuak nabarmenduz, lehen aipaturako helburuak bermatu nahi badira. Jarraibide horiek sistema batetik besterako igarotzei erreparatzen diete, sistema horietako bakoitzak egin behar duenari, beste eragile batzuen lana ez alferrik galtzeko, horiek ezinbesteko lankideak baitira. Horrela, erantzun koordinatua emateko proposamenak eragile bakoitzaren erantzukizunak mugatzen ditu, jardueren sekuentzia jasotzen du eta iraunaldiak zehazten ditu.

2.2. Printzipioak eta ideia eragingarriak

Gomendio hau haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegitik egina da eta ikuspegi horrekin jorratu da haurren sexu-biktimizazioa, ezin baitzitekeen bestela izan Arartekoa bezalako erakunde batean. Haurrak eta nerabeak eskubideak dituzten pertsonak dira, eskubideen subjektuak. Paradigma horretatik abiatuta, haurrenganako sexu-abusua haurren kontrako indarkeria da, haurrei eta nerabeei tratu txar larriak ematea, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak eta Batzordeak berak gogorarazten digutenez.

Eskubideen ikuspuntu horretatik begiratuta, bi ideia eragingarri hauek egiten diete tira gainontzeko elementuei:

1. Jarduera guztiak bigarren mailako biktimizazioa arintzera bideratuta daude, eginbide errepikakorrak saihestuz eta gutxieneko esku-hartzearen, biktimitasunaren eta espezializazioaren irizpideetara egokituz. Horren haritik,

bereziki azpimarragarria da parte hartzen duten profesional guztiek eragotzi egin behar dutela, ahal duten neurrian eta prozesuko fase bakoitzean, adingabeek egintzen kontakizuna errepika dezaten, bai jatorrizko zantzu kognitiboa zaintzeko (balizko prozedura judizial batean froga gisa erabiltzeko), bai gertakariak trauma moduan bizitzea ekiditeko.

Gai horri dagokionez, arlo judizialean berebiziko garrantzia hartzen du aurrez eraturako froga ahalik eta ongien egin dadin errazteak (hurrenganako sexu-abusuak gertatzean, funtsezko euskarria baita), etorkizunean bere ondorio guztiak heda ditzan, alde guztientzako berme guztiekin, eta denbora laburrean, tratamendua lehenbailehen hasi ahal izateko.

2. Biktima diren haur eta nerabe guztiek tratamendua jaso ahal izatea, kaltea al bait azkarren konpon dadin. Horretarako, bermatu egin behar da tratamendu horretarako eskura dauden zerbitzuak publikoak eta unibertsalak izango direla (hau da, ez dadila egon gurasoen babes-maila handiagoaren ala txikiagoaren mende) eta, aurreko ideiarekin zuzenean lotuta, eragile guztiek tratamenduaren hasiera ahalbidetzeko lan egiten dutela, alferrikako atzerapenik gabe.

Horren osagarri, hona hemen proposatu diren jarduteko printzipioak -gehiago garatuta daude honekin batera bidalitako eranskinean-:

- Haurren kontrako sexu-abusuari eta sexu-esplotazioari buruzko kasuetan esku hartzean, erakunde sinatzaile guztiek batak bestea aliatutzat jotzea eta, beraz, parte hartzen duten erakunde guztiek lankidetzat printzipioa betetzea.
- Bizkortasun eta eraginkortasun printzipioa. Hori gauzatzeko, erakunde guztiek lehentasunezko jarduera-kasutzat jo behar dituzte hurrenganako sexu-abusuari eta sexu-esplotazioari buruzko kasuak
- Neurriak hartzea, haur eta nerabeei eta beren familiei prozesu osoan lagunduko zaiela eta esku hartzen duten eragileak espezializatuak izango direla ziurtatzeko.
- Arreta eskaintzea hurrenganako abusuak eta genero-indarkeriak bat egiten duten kasuen konplexutasun bereziari. Neska-mutiko horien beharrei erantzutean, aintzat hartu behar da bi aldiz direla biktimak, izan ere, abusuaren eraginpean dauden hurrei genero-indarkeriaren biktima "zuzenak" direla aitortzen zaie.
- Bete egin behar dira biktimaren eta akusatuaren auzi-bermeak eta probaren bermeak.

2.3. Baterako lana: prozesuko lehen lorpena

Lantalde zabala eta anitza eratzeak berak ekarri du, ziur aski, **lehen lorpena**, alegia, **baterako lana** dela. Lan-saioetan eta era askotako lan-arlo, ezagutza-eremu eta diziplinetatik etorritako pertsonak elkarri agiriak eman dizkiotenean, elkarrekin partekatu, ezagutu eta ulertu dituzte beraienak ez bezalako sistemetakiko ikuspegiak,

prozesuak, prozedurak, jarduerak, eta abar. Horrela, adostasuna erraztu da erakundeen eta eragileen artean (arlotu judiziala, osasun, hezkuntza, gizarte-zerbitzuen arloak, segurtasun arloko kidegoak eta indarrak). Denek partekatzen zutela sentiarazteko moduko hizkuntza bilatu da eta ahalegina egin da jarduteko jarraibideetan adieraziko diren elementuak azaltzeko.

Ahalegin “didaktiko” hori islatzen da agirian; horrela, agian horrelako beste tresna batzuetan ez bezala, zenbaitetan kontzeptu bat definitzeko tartea hartzen da edo xeheki azaltzen da sistema bakoitzerako proposatzen duena, nahiz eta errepikakorra izateko arriskua egon.

2.4. Urrats bat norabide egokian

Aldi berean gertatu dira, batez ere azken hilabeteotan, protokoloaren gaineko proposamen teknikoa egiteko lanak eta helburu nahiz orientabide bereko beste ekimen batzuk. Seguru asko, hauxe da aipatu beharreko lehen ekimena: haurrak eta nerabeak indarkeriaren kontra osorik babesteko lege organikoaren proiektua, zeina orain Gorte Nagusiak bete-betean izapidetzen ari diren. Lege-proiektu horren historia luze eta oztopatuak zuhurrak izatera behartzen bagaitu ere, badirudi oraingoan testu bat onar litekeela eta horrek, ziurrenik, proposatu diren jarduteko jarraibideetako xedapen batzuei eragingo diela, horiek baliogabetzeko baino gehiago, beharrezkoak ez izateko, legean jasoko direlako.

Euskal testuinguruan, gogora ekarri behar da Eusko Legebiltzarraren XI. Agintaldiko ponentzia hau: “Haurren aurkako sexu-abusuak ikertzeko, prebenitzeko, egia esateko eta konpontzeko proposamenak egingo dituen azterlana prestatzeko txostena”. Hori bukatzeke geratu zen, 2020ko otsailaren 10ean hauteskundeak deitu zirelako. Agintaldi horrextan, Eusko Jaurlaritzak txosten zehatz bat egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko haurren aurkako indarkeriaz, eta hori izango du oinarri haur eta nerabeenganako indarkeria prebenitzeko iragarri den euskal estrategiak.

Oraintsuago, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko egungo arduradunak Eusko Legebiltzarraren Berdintasun eta Gizarte Politiketako Batzordeen aurrean aurkeztu ditu sail horrek XII. Legealdirako (2020-2024) izango dituen jarduera-lerro nagusiak. Horien artean aipagarria da, gomendio honen aztergaiari begira, Barnahus ereduaren aldeko apustua sexu-abusua edo/eta sexu-esplotazioa pairatu duten haur eta nerabeak artatzeko. Eredu horrek sustatzen du haurrei baliabide bakar bateratu batean ematea (*haurren etxea*) arreta espezializatua eta osoa.

Barnahus eredu, egiaz, asmo handiko proposamena da, erakunde honek betidanik jo du erreferentzia egokizat, eta European gero eta gehiago ezartzen ari da. Nolanahi ere, eredu hori abiarazi nahi bada, ezinbestekoak izango dira adostasunak eta prestakuntza-lanak, eta, Estatuko lurraldean egindako lehen esperientzia erreferentziazat hartzen badugu (Kataluniakoa, oraindik pilotu fasean dagoena), oraindik luze samar joko du.

Gomendio honekin batera egin den proposamen teknikoa ez zaie kontrajartzen, atal honen hasieran esan dugunez, ekimen berri horiei denei, eta, gainera, guztiz bat dator ekimen horien helburuarekin eta orientabidearekin. Sexu-abusua haurren

Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideak

aurkako indarkeria larritzat hartzen du; biktima den neskato, mutiko edo nerabe bakoitzaren interes gorenean oinarritzen da; berriz biktima bihurtzea galarazi nahi du, eta beharrezko tratamendua eman, jasotako kaltea konpontzeko; kasuak hobeto antzematera eta horietan hobeto esku hartzera bideratuta dago; sistema publikoetako eragile parte-hartzaileen artean ezinbestez partekatu beharreko lantzat hartzen du esku-hartzea.

Proposatu diren jarduteko jarraibideek jada egin dute bide jakin bat: finkatu dituzte partekatutako helburuak eta orientabideak, lortu dituzte adostasunak eta erabaki dituzte lan koordinatua egiteko moduak. Hasieran esan dugun bezala, ez da eredurik onena (nahiz eta horri ez zaion uko egin behar), baina bai, ziur aski, oraingo egoeran erabilgarriena. Horregatik guztiatik, pentsa liteke jarduteko jarraibide hauek lehen urratsa direla norabide egokian, tresna egiazkoa eta egungoa dela, erantzun hobeago eta asmo handiagoko baten zerbitzuan, hori lortzeko lanean jarraitu behar baita.

Aurrekarietan azaldutakoagatik guztiatik eta aipatutako gogoetak kontuan hartuta, Arartekoari oso interesgarria iruditzen zaio:

1. Proposamena egiteko eratu den lantaldean, (beraiek izendatu zituzten erakundeen izenean) parte hartu duten pertsonen konpromisoa, inplikazioa eta beraien ekarpenen kalitatea **aitortzea**.
2. **Herritarrei zabaltzea** eta ezagutaraztea zer emaitza izan duen Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibide batzuk egiteko lan teknikoak.

Arestian azaldutakoa kontuan hartuta, [otsailaren 27ko 3/1985 Legeak](#), Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak, 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak **GOMENDIO** hauek ere egin nahi dizkie:

- A. Gaiak eragindako administrazio publikoei, hau da, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun, Hezkuntza, Osasun eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailei, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Departamentuari, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Departamentuari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Departamentuari eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalei:

Ezar ditzatela “Euskadin haur eta nerabeen sexu abusu eta esplotazio kasuetan jarduteko jarraibideak” izenburuko agirian jasotako neurriak (idazki honi erantsi dizkiogu), beren sistemari edo erakundeari dagozkien alderdi zehatzetan.

- Jarduteko jarraibide horiek zabal ditzatela beraien eskumen-eremuetan, eta beharrezko ekintza eta aldaketa guztiak abiaraz ditzatela jarduteko eta prozedurazko eredu bakoitza bertan ezarritako neurrietara egokitu dadin eta neurri horiek barnera ditzan.
- Nork bere alorreko profesionalen prestakuntza eta espezializazioa susta ditzala, baita praktikak arlo pribatuan egiten dituztenenak ere. Gainera, ziurtatu beharko da prestakuntza tekniko espezializatu hori giza eskubideen, haurren eta generoaren ikuspegitik begiratuta gauzatzen dela.
- Garatutako neurrien bilakaera azter dezatela eta horiek ebalua ditzatela, beharrezkotzat jotzen diren zuzentzeko eta hobetzeko elementuak erantsiz eta Arartekoari horien berri emanez, jarduteko jarraibide horiek eguneratu ditzan, hala badagokio.

- B. Gizarte-zerbitzuen sistemari:

- Arreta osoko eredu baten alde egiteko lehen urrats gisa, beharrezko zerbitzuak abian jar ditzala sexu-abusua jasan duten haur eta nerabe guztiei tratamendu publikoa jasotzeko aukera bermatzeko, beraien familien babes-ahalmenari buruzko edozein balorazio baztertuta.

Era berean, honako hau **ESKATZEN DIE** justizia-administrazioa osatzen duten erakundeei, hau da, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari eta Gobernu Idazkaritzari, Euskal Herriko Fiskaltza Nagusiari eta Abokatutzako Euskal Kontseiluari:

- Ahal den neurrian, ahalbidetu dezatela gomendio orokor honetan bildu diren jarduteko jarraibideak beraien prozedurazko jardueretan erabiltzea, eta horrekin bat etorritz:
 - ✓ Jarraibide horiek jarduera egokitzen onar ditzatela, arlo judizialean haurren eskubideak sustatzeko eta berriz biktima bihurtu daitezkeen galarazteko.
 - ✓ Balioetsi dezatela jarduteko jarraibide horien ezarpena sustatzeko aukera, horiek berretsiz, onartuz edo erakunde bakoitzeko Gobernu Organoak egokitzen hartzen duen formula erabiliz.
 - ✓ Jarraibide horiek ezagutarazi/zabaldu ditzatela, eskura dauzkaten eta egokiak iruditzen zaizkien komunikazio-tresnak baliatuz.
 - ✓ Justizia-administrazioko kideen prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak susta ditzatela, jarduteko jarraibideak ezagutu eta gauzatu ditzaten.

ararteko

Herriaren Defendatzailea

Defensoría del Pueblo